

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA
**Degurixan
kanpalekua /08**

INTERNET
**Erantzun ona
KZGuneari /09**

LEINTZ GATZAGA
**25. txirrundulari
lasterketa /10**



Osatuta dago
hurrengo lau urteotarako
GOBERNU BATZORDEA

GUARDIAKO FARMAZIA

UZTAILAREN 16TIK ABUZTUAREN 16RA
ITURRALDE. Mitarte 18. 943 79 27 22
ABUZTUAREN 16TIK IRAILAREN 16RA
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. 943 79 21 99

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK	
Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkartea	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
KZGuinea	943 79 94 44
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxiko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 71 19 59
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Taxi geltokia	943 79 22 33
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALZAINGOA
Arrasate

LARRIALDIK
SOS Deiak

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Hiletak: 19:00

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Zapatuetan: 18:30
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN: LARRINO
Domekan 12:30ean.

MENDIOLA
Domekan 12:00etan. Otoitzaldia.

GELLAO
Domekan 11:30ean.

OHARRAK

EUSKAL PRESOKAK EUSKAL HERRIRA ASTEA
EPEH astearen barruan, gaur, egubakoitza, Bat Gehio taldeak kontzertua eskainiko du Ezkutun, 22:30ean. Bihar, ostera, Kurtzebarrira mendi ibilaldia egingo dute. 09:00etan irtengo dira Herriko Plazatik. Eguerdian, berriz, herri bazkaria egingo dute Mitarte plazan.

MUS TXAPELKETA
Artano eta Orly tabernek antolatuta, bihar, zapatua, Mus Txapelketa egingo dute. 16:00etan hasiko da txapelketa, eta izena emateko 15:30ak baino lehen hurreratu behar da Herriko Plazara.

'HIRE HIMALAYA' PROIEKZIOA
Bihar, zapatua, *Hire Himalaya* proiektzioa eskainiko du Alberto Inurrategik, 23:00etan, Felix Inurrategi lorategian; eguraldi txarra eginez gero, frontoian.

MENDI IRTEERA
Felix Inurrategi-Baltistan Fundazioak mendi irteera antolatu du domekan. 09:00etan irtengo dira Felix Inurrategi lorategitik.

SEBERIANO AIASTUIREN GAINEKO BIDEO EMANALDIA
Fabio Etxarrik, Argentinako Euskal Etxeko arduradunak, egingo du eguaztenean, hilak 23, 19:30ean, udaletxe zaharrean.

LORAMENDIREN AGENDA

'BERRIA'-RI LAGUNTZEKO KAMISETAK SALGAI
Berria egunkariari laguntzeko kamisetak atera dituzte eta Loramendi EEko lokalean daude salgai. Umeendako egindakoez kolore biziak dituzte eta 12 euro balio dute; emakumeendakoak laranja kolorekoak dira eta 15 euro balio dute; gizonendako, ostera, beltzak eta zuriak atera dituzte eta 18 euro balio dute.

ORAIN DELA 6URTE ARETXABALETAN

Akordeoi Orkestra Italiako jaialdian


Aretxabaleako nagusien Akordeoi Orkestrak Italiako Santa Giustina herrian egin zuten II. Nazioarteko Akordeoi Jaialdian hartu zuen parte. Hilabete batzuk lehenago gonbidapena jaso zuten Italiatik, eta hari erantzunez joan ziren. Uztailaren 15ean irten ziren Aretxabaletatik.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Errengillaria"

Ilara.
—Txindurri errengillaria agiri zan bidian.
—Jente errengillaria plazaraino aillagatzen zan.



GORKA ORTEGA

LIBURUTEGIKOTXOKOA

Oporretarako liburuak

- HELDUAK**
- 'El libro de las ilusiones' / P. Auster
 - 'Van't Hoffen ilea' / U. Elorriaga
 - 'Eulien bazka' / H. Etxeberria
 - 'Gorrotu haut' / B. Hrabal
 - '5 el número perfecto' / Igort
 - 'La Cueva' / T. Krabbé
 - 'La cultivadora de rosas' / C. Link
 - 'Cuentos reunidos' / C. Lisspector
 - 'La vida en las aulas: memoria de la escuela en la literatura' / I. Martínez de Pisón
 - 'Jorge Oteiza, egonezinaren laudorioa' / F. Marañón
 - 'El afinador de pianos' / D. Mason
 - 'El ángel descuidado' / E. Mendicutti
 - 'Uda betiko balitz!' / X. Mendiguren
 - 'Denboraren izerdia' / X. Montoia
 - 'Mujeres sin hombres' / S. Parsipur
 - 'La mirada inocente' / G. Simenon

JOSEBA LÓPEZ DE ARMENTIA

ZORIONAGURRAK



ARETXABAETA
Garazi Otx de Mendibil
10ean, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABAETA
Julen Martinez
14an, 1 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABAETA
Angel Irure
15ean. Zorionak eta urte askotarako, lagun guztien partetik.



ARETXABAETA
Xeli Etxeandia
15ean. Zorionak eta urte askotarako, lagun guztien partetik.



ARETXABAETA
Mari Karmen Etxeandia
15ean. Zorionak eta urte askotarako, lagun guztien partetik.

Zorionak!
Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak ARETXAGAZETAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia* eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

BABESLEA
FOTOSINTESIS
argazkilaritza
Errebelatu guztiak 24 ordutan
Kamerak • Karnetetako argazkiak • Ezkontzak • Estudioko argazkiak
Herriko plaza 5 ARETXABAETA 943 79 79 67


ARQUERO CONSTRUPLAN S.L.
Zuzendaria: **Lyonel Arquero**
Dekorazioa: **Soraya Arquero**
ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK
Tel.: 943 79 01 51
Basabe Poligonoa 4, EQ-11 • ARETXABAETA

BAR GUREA
EGVNEKO MENYK OTARTEKOK ETA PLATER KONBINATYK
DURANA 32 • TEL. 943 792064
ARETXABAETA

Angelines AUTOZERBITZUA
Frutan eta txarkuterian espezialitatea
Mitarte 16 • 943 79 61 42
ARETXABAETA

Aretz taberna
Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABAETA

ATREBENTZIAEZPADA/ Ze moduz Udaleku Irekietan? Oin arte ze ekintza gustau jatzu gehixen?



XABIER ANTIXIA
7 urte



EIDER IRAZUEGI
6 urte



NAHIKARI CUSTODIO
6 urte



LIDE PAGALDAI
11 urte



JULEN APERRIBAI
8 urte



IKER LÓPEZ
5 urte

Ondo. Astian Galartzara fan gare egun bittan eta edarto ibilli naz. Jokuek egin dittugu, urekin bata bestie bustitten ibilli gare eta sugalindarak harra-pau dittugu.

Oso ondo. Iez be ibilli nitzen, eta aurten be oso ondo nabil pasetan. Gehixen? San Fermin egune. Zezenak bilddurre emuten dustie, baiñe, hala eta be, edarto ibilli nitzen.

Edarto. Igerilekure fatie da gehixen gustau jatena. Honeikin bero haundixokin gustora ibiltten naz urekin jolasien. Kolunpuxuetan be jolas asko egin dot aurten udalekuetan.

Ondo. Urtero-urtero izena emuten dot Udaleku Irekietan, eta beti edarto ibiltten naz, ez naz inoix aspertu. Aurten gehixen gustau jaten ekintzak Zikin Egune eta Altxorran Bille izen die.

Oso ondo. Igerilekuen pasau dot oin arte onduen. Astien, indixoka jolasien ibilli gare, eta hor be edarto pasau dot. Datorren urtien be emungo dot izena Udaleku Irekietan, dudarik barik.

Ondo. Jolas asko egitten dittugu eta edarto pasetan dot. Aurten, igerilekuen ibilli naz gustora. Apur bat txikiñe zan eta ezin izen dot igeri egin, baiñe jolasien ondo ibilli naz.

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK JOLASPARKEKO HOBKUNTZAK Gurasoak beti arduratzen dira umeen osasun eta hobe beharraz. Hala, horietako batzuk aspalditik zebiltzan eskatzen Gipuzkoa plazako jolasparkea hobetzeko lanak egitea. Gernika plazako parkean egin zuten moduan, Gipuzkoakoan ere jolasparkearen oinarrian umeak min har ez zezaten zoru berezia jartzea eskatzen zuten. Eta azkenean ere jarri dute. /A.L.

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

Osatuta Gobernu Batzordea

Astlehenean osatu zuten Gobernu Batzordea. Gainerako batzordeen arduradunak ere izendatu dituzte.

ASTEAN BEHIN /05

'Hire Himalaya' proiektzioa

Felix Inurrategiren urteurrena gogoratzeko 'Hire Himalaya' proiektzioa emango du Albertok.

KIROLAK /06

Bixente Etxeandia

UDAKo presidente Bixente Etxeandiarri elkarrizketa egin diogu. Datorren denboraldiaz egin dugu berba.

ASTEKODATUA

2

URTEAN EZ DA PORTASOLGO JAIRIK EGIN

Duela hiru urte ospatu zituzten azkenekoz Portasolgo jaiak edo San Lorentzoak. Ordutik hona inork ez du hartu gura izan festak antolatzeako ardura, eta ondorioz ez da jairik ospatu.

BESTEKEESANA

San Clemente proiektuan, lehengaia, hau da frutak eta barazkiak, eraldatu eta horiekin beste produktu bat ateratzen gabilta. Gero, azken produktu hori salmentara bideratutako kooperatiba batera eramaten dugu. Proiektu hori lantzen zazpi urte daramatzagu, eta uste dot datorren urtean amaituko dugula.

San Clemente proiektuan oraindik ere ez daude gauza guztiak lotuta, baina pixkanaka-pixkanaka, urtebete edo bi urteren bueltan, sistema guztiz finkatuko dugu.

Etorkizunean, orain, frutarekin eta barazkiekin egiten dugun moduan, beste produktu batzuk lantzeko asmoa ere badugu. Okela eta esnea, esate baterako. Dena batera beharrea, baina, zatika egingo dugu.

SEBASTIAN URIBETXEBARRIA
GOITB/03-07-15

HERRITARRENBERBAK/ Resu Abasolo



Eguzkienea?

Astlehenean egunkaria irakurtzen hasi eta hara! Debagoiendarroir zuzendutako iragarkia: "Eguzkienea promozioa". Ez nuen aintzaketat hartu, errakuntzatat baizik eta Donostiakeriekin -barkatu- lotu nuen. Baina, bai zera! Apotzagako malda, San Bernabe hegala, Kantuska Apotzaetxebarriko zelaixek... etxez josi eta *Eguzkienea* izena hartuko dute. Dagoeneko Aretxabaletako izen toponimikoak ere nahita galdu egingo ditugu. Gero, 3003an biziko diren biztanleek transmisio naturalaren bidez jasoko ez dutena erreskatatzen denbora eman dezaten. Ze pena nirea! Agian, unibertsala baino antigioalekoa gehiago izaten hasita nago eta malda horretara bizitzen datozenei begira *Eguzkienea*-k gehiago esango die. Globalizazioa.

Pena alde batera utzita beste kezka batzuk datozkit burura. Aretxabaleta hoberenaren bila dabiltzala promozio honen bultzatzaileak zalantzarik ez daukat. Lege eta arau aldetik ezin

ezer esan denak primeran koardatuko baitu. Baina hazkuntza naturala al da Aretxabaletarentzat bat batean % 10 handitzea? Aretxabaletak onar ditzakeen etxe guztiak generazio honek egin eta erosi behar al ditu? 1960-1980 bitartean jasandako gorakadaren ondorioak normalizatu al daude? Nongo erreferentearen atzetik gabilta? Zergatik hainbeste etxebizitza berri, 300 hutsik daudenean? Etxe hutsak gehitzeko? Apotzaetxebarriko zelaixak dotoretzeko? Dirua ezkutatu beharra dagoelako? Aurreraparen seinale delako? Lekua benetan aparta delako?

Niri irentsi ezina gertatzen zait bat batean egindako 90+150+300 etxebizitza berrik dakartena. "San Dios" izenarekin bataiatu garen generazio honek, diruz lortzen ez den zerbait egiten erakutsiko al dio hurrengoari? Etxebizitzak, lo egiteko balio izateaz gain dituen balioak, jakina: herritarra izateko konpromisoa, herria egiten jakitea, herrian bizitzen ohitzea, herriaz gozatzeko gai izatea.

"San Dios izenarekin bataiatu garen generazio honek, diruz lortzen ez den zerbait egiten erakutsiko dio hurrengoari?"

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA
Goio Arana

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
3.800 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



M. J. Aretxaga

Kirol kontu ugeri

Jairik jai dabitz asko; ikusi besterik ez dau joan zan aste bukaeran zenbat aretxabaletar ebizten Iruñan San Fermiñetan. Bai, egixe da, ni neu be hantxe izen nintzen... eta edarto pasau neuen. Beste batzuk, eta hemen ez nitzen egon, Operación Triunfoko abeslarixek Gasteizen emun euien kontziertora joan zien domekan. Bai, bai, hemen be aretxabaletar asko.

Batzuk jaixetan baiñe beste batzuk kirola egin eta egin ibilli die. Hala, **Dabid Gonzalez** Arrasateko Txatxilipurdi taldiekin Naparrue aldera joan eta ezbeharra izen euen errekan ebillela. Helikopteruen eruen biher izen euien Iruñako ospitalera. **Mikel Galdosek**, oster, ez dau arriskue daukien kiroliek egitten. Golfien jokaketan dau berak, ondo jokatu be, eta Zarauzko Txapelketan hartu dau parte. Zer egin euen, hori ez dakit... **Angel Arrese** ere aittetu gure dot. Honek ez dot uste kiroliek egitten dauenik baiñe bizikleta gainien asko ibillituekue bada. Hori dala eta gaur, egubakoitza, Gatzagan, omenajetxue egingo dotzie. Berakin batera txirrindularitzan alde lan asko egingdeko beste bi be egongo die. Eta bukaketako, gogoretu, bi mendi urteera daukogule aste bukaeran bata zapatuen, bestie domekan.

OSOKO BILKURA/ Gobernu batzordea eguenetan batuko da; ohiko osoko bilkurak bigarren astelehenetan egingo dituzte EAJ-EA koalizioak, Aralarrek eta Ezker Batuak osatu dute Gobernu batzordea datozen urteotarako

MIRARI ALTUBE

Astelehenean egin zuten agintaldiko lehenengo osoko bilkura. Gobernu batzordea zelan osatu duten eta batzorde bakoitzaren ardura zein zinegotzik hartu duen esan zuen Arritxu Oliden alkateak. Egun osoz alkate lanetan jardun gura duela gaineratu zuen.

Datozen lau urteotarako Gobernu batzordea osatu zuten astelehenean: EAJ-EA koalizioa, Aralar eta Ezker Batua egongo dira.

BATZORDEAK BANATUTA

Aralar alderdiko laugarren zinegotzia izan ezik udalbatza osoa batu zen astelehenean lehenengo osoko bilkura egiteko. Batetik, Gobernu batzordea osatu zuten: EAJ-EA koalizioko Arritxu Oliden eta Maitane Urrutia, Aralarako Xabier Sarasua eta Felis Beltran de Heredia eta Ezker Batuko Jaime Muxika egongo dira.

Bestetik, batzorde bakoitzeko arduradunak izendatu zituzten. Hirigintza batzordeko presidentea Jaime Muxika izango da, eta barruan lau atal egongo dira: Lanak eta Zerbitzuak eta Etxebizitza atalak Jaime Muxikak berak hartu ditu; Ingurumena Aralar alderdiko Jose Anjel Antxiak; eta



Iñaki Sierra Aralarako laugarren zinegotzia izan ezik, gainerako zinegotzi guztiak batu ziren asteleheneko osoko bilkuran.

Hirigintza Egitasmoak Arrixuk, Ogasuna Galo Sánchezek izango du; Hezkuntza Maitane Urrutiak; Garapen Ekonomikoa Jesus Mari Herrastik; Kirolak Mikel Uribebarriak; Gizarte Ongizatea

Iñaki Saenz-Azkunagak; Auzaok Arrixuk; Euskara Xabier Sarasuak; Gizarte Segurtasuna eta Heziketa Felis Beltran de Herdiak, eta Kultura Xabier Sarasuak.

Bestalde, Arritxu Olidenek egun osoz alkate lanak egin gura dituela aipatu zuen. Horretarako prozesua abian jarri du eta urtarri inguruan bozkatuko du udalbatzak Arrixuren eskaera.



Gaurko festarekin agur esan diete Udaleku Irekiei

Udaleku Irekiak bukatzeaz daude. 186 ume ibili dira aurtun 30en bat begiralarekin, eta ederto pasatu dute hiru asteen. Denetik egiteko astia izan dute: jolasak, txangoak, igerilekura irteerak, Euskaren Eguna... Gaur bertan bukaera festa egin dute, eta astelehenean azken irteerak egingo dituzte: 6 urtetik aurrerakoak Donostiara joango dira eta txikiak, berriz, herri inguruan geratuko dira. /M.A.

URKULU

FERRETERIA • BRICOLAGE
INDUSTRIA HORNIDURAK

Mitarte 23 / ARETXABALETA
Tel.: 943 79 96 66 / Faxes: 943 77 10 33
urkulu@cadena88.com

BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak
eta mortzilak

Durana 9. Aretxabaleta
Tel.: 943 79 19 79



Miren & Zuriñe

Bitxitegia • Erloju denda
Bitxien diseinua
Bitxien konponketa

Otalora 4 (eliza aurrekaldean)
Tel.: 943 77 13 57
ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28

HIRUGARREN MUNDUA / Dagoeneko 30 urte daramatza Kolonbian, Guatika eskualdean

Sebastian Uribetxeberria marianista herrian egon da

MIRARI ALTUBE

Dagoeneko 30 urte daramatza Sebastian Uribetxeberria marianistak Kolonbian. Guatika eskualdean egiten du lan. Batetik, institutuko irakaslea eta zuzendaria da, eta bestetik, nekazaritza eta abeltzaintzarekin zerikusia duten proiektuak garatzen dabil.

Aste honetan bertan itzuli da Sebastian Kolonbiara. Goroetako Urkulu baserrian jaio zen. Marianistekin ikasi eta marianista egin zen hura ere. 1973. urtean joan zen Kolonbiara eta geroztik bertan dago, Guatika eskualdean.

BARAZKI ETA ESNEKI LANTEGIAK

Urte bi egin ditu etorri barik, eta aurten, COPAC nekazari kooperatibako gerentearekin etorri da. Sebastian bizi den eskualdean, Guatikan, barazkien, esnekien eta haragien lantegiak sortu zituzten orain bost urte inguru; Aretxabaletako Hiruatx elkarteak, beste batzuekin batera, laguntza handia eman zion orduan San Klemente proiektuari.

COPAC kooperatiba, bestalde, 2001ean sortu zuten, eta aldake-



ARTXIBOA

Sebastianek 62 urte ditu, baina buru-belarri dabil lanean Kolonbiako Guatikan.

ta handia ekarri zien Guatikako nekazariei. Sebastian hemen egon den bitartean Mundukide Fundazioarekin egin du berba lankidetzaz bultzatzeko; helburua da koo-

peratibak garatuz joatea eta proiektuak abian jartzea. Horretarako, ostera, kooperatibek duten garrantzia erakutsi behar ko diete nekazari kolonbiarrei.

'Hire Himalaya' proiektzioa emango dute Felix gogoratzeko

M. A.

Felix Iñurrategi mendizale aretxabaletarra hil zela hirugarren urteurrena beteko da hilaren 28an. Hori horrela, Felix Iñurrategi-Baltistan fundazioak *Hire Himalaya* proiektzioa emango du zapatuan Felix Iñurrategi lorategian, eta domekan mendi irteera egingo dute.

Felix Iñurrategi orain hiru urte hil zen, 2000ko uztailaren 28an, hain zuzen. Felix eta Alberto anaiak Gasherbrum II gailurre-

ra iritsi eta gero, beherantz zihozela gertatu zitzaion Felixi ez-beharra; 400 metrotik behera erori eta G-IIren magalean geratu zen betiko.

URTERO EKARTZEN DUTE GOGORA

Ez mendizaleek, ez herritarrok ez dugu berehalakoan ahaztuko Felix. Hori horrela, Felix Iñurrategi-Baltistan fundazioa sortu zuten bai Felix gogoratzeko, bai Felixen ametsa betetzeko: Nepaleko herritarrei laguntzea. Aretxabaletako Udalak, berriz, udaletxe

osteko lorategiari Felix Iñurrategi izena jarri zion, eta haren omeneko harria jarri zuen.

Fundazio horrek urtero antolatzen du ekintzaren bat edo beste Felixen heriotzaren urteurrena hurbiltzen denean, eta aurten ere halaxe izango da. Zapatuan *Hire Himalaya* proiektzioa eskainiko du Alberto Iñurrategik Felix Iñurrategi lorategian, 23:00etan. Eguraldi txarra eginez gero frontoian egingo du. Domekan, bestalde, mendi irteera egingo dute; 09:00etan aterako dira lorategitik.

LABUR

Uztailaren 22an, martitzena, batuko dituzte baserrietan erabiltzen diren plastikoak

Deba Garaiko Mendi Nekazaritza Elkarteak baserrietan erabiltzen dituzten plastikoak batzeko zerbitzua dauka. Hurrengo martitzenean, hilak 22, arratsaldean batuko dituzte aipatutako plastikoak, eta Aretxabaletan hiru lekutan utz daitezke: Lausitta kalean, Izurietara doan bide gurutzetik 100 metrora; Bainuetxe kalean, Mendiolara doan bide gurutze parean; eta Oroko bide gurutzean.

Lau eratako plastikoak batzen dituzte: siloa estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza, belar boletakoa, negutegietan eta ortuan lurra estaltzeko erabiltzen dena, eta negutegiko plastiko zuria.

Argentinan dagoen Seberiano Aiastui misiolariaren gainean egingo dute berba

Datorren eguaztenean, hilak 23, Argentinan dagoen Seberiano Aiastui misiolari marianistaren gainean egingo dute berba udaletxe zaharrean, 19:30ean. Horretarako, Argentinako Euskal Etxeko arduradun Fabio Etxárrri etorriko da, eta Seberianok Argentinan bizi izandakoak erakusten dituen bideoa emango du. Seberiano Aozaratzako Ojala-Zelai baserrian jaio zen orain dela 89 urte, baina dagoeneko 20 urte daramatza Argentina iparraldean.

TXUTXUMUTXUA



Malabarismo ikastaroa baino gehiago

Loramendi Eek malabarismo ikastaroa antolatu zuen, baina pilotak erabiltzen baino zerbait gehiago dabil erakusten irakaslea. Sebastopoleko Titiriteroak antzerki taldeak duen eskolatik etortzen da aipatutako irakaslea, ezaguna bera *Goenkale*-n agertu ohi delako, eta Aozaratz ingurura joaten dira gorputza lantzerako. 12 aretxabaletar dabilta ikastaroan, eta dagoeneko hasi dira zirkuan egiten dituzten jokoak egiten. Hilaren 24an bukatuko da ikastaroa; hortaz, zer ez ote dute ikasiko! /M.A.

LEIBAR

arrandegia



Mitarte Kalea 1
Tel.: 943 77 13 79
Aretxabaleta

AMETS TABERNA

Iparagirre 4
Tel: 943 79 01 29
ARETXABALETA

PIENSO
SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea
ARETXABALETA
Tel.943 77 00 33/79 42 56

IOSU HARATEGIA

Urdaitegia-Gozotegia
kroasantegia
Janari prestatuak

Mitarte kalea
ARETXABALETA
943 77 03 08

ELKARRIZKETA

BIXENTE ETXEANDIA/UDA ELKARTEKO PRESIDENTEA

"Kanpotik ez da horrelako egoerarik ikusten, baina UDAn krisian gaude"

AMAGOIA LASAGABASTER

UDA elkarteak ez dago bere momenturik onenean. Laguntasun premia latza du. Hala ere, Bixente Etxeandia elkartearen presidentea gertu dago lanari ekiteko. Aurten hamargarren denboraldia egingo du presidentzian.

Zer moduz joan zen joan den egubakoitzean, hilak 11, egindako batzar orokorra?

Gaizki. Hamar lagun besterik ez ginen elkartu, eta UDAn 700 bazkide ditu gutxi gorabehera. Jendeak ez du lagundu gura.

Zelako osasuna du UDAn?

Krisian gaude. Beharbada kanpotik ez da horrelako egoerarik ikusten, baina barrutik bai. Momentu honetan Zuzendaritza batzordean oso jende gutxi gaude. Hemen lan handia dago egiteko, eta gaur egun lan hori guztiori hiru lagunek bakarrik egiten dugu. Gehiago izanez gero, lana banatu eta lasaiago ibiliko ginateke.

Eta diru aldetik ze moduz dago UDA?

Hor ere ez gabilta oso ondo. Joan den urteko balantzea egin ostean, 1.800 euroko galerak izan ditugula ikusi genuen, eta ez dakigu diru hori zelan ordainduko dugun. Hala ere, esan beharra dago, hamabostean behin saltzen ditugun zozketarako txartelek diru asko irabazten dugula. Baina, jakina, horretarako ere, zapa-tuetan eta domekatan hortxe egon behar izaten dugu, kalean, txartelak saltzen, eta dagoeneko asper-tuta gaude. Gainera, txartel horiek saldu ezean UDAn ez luke denboraldiari aurre egiteko dirurik izango, eta orduan, zer? Aurten 72.000 euro inguruko aurrekontua dugu, eta ikusi egin behar zelan moldatzen garen.

Udalak ez dizue laguntasunik ematen?

Hauteskundeetan bakarrik gogoratzen dira gutaz, gero ez. Orain dela zortzi bat urte Ibarroko



AMAGOIA LASAGABASTER

"Udalekoak hauteskunde garaian bakarrik gogoratzen dira gutaz, gero ez"

taberna konpontzeko konpromisoa hartu zuen, eta oraindik ez du ezer egin. Ibarroko gastuen ardura Udalak hartzea gura dugu.

Eta hori guztiori zelan konpon daiteke?

Irtenbidea lan egiteko gertu dagoen talde bat topatzean datza.

"Egoerak berdin jarraitzen badu, urtarrilean beste batzar orokor bat egingo dugu"

Laguntasunarekin edozein arazo konpontzeko gauza izango gara.

Ultimatumik izango da?

Ez dakit. Hasiere baten, aurtengo denboraldia guk antolatuko dugu, baina egoerak berdin jarraitzen badu, urtarrilean beste batzar orokor bat egingo dugu.

PIRAGUISMOA

Bertan behera gelditu da Murruxiko elkarteak Errobira antolatutako piragua irteera

Murruxiko elkarteak oraingo astebururako antolatuta zuen piragua irteera bertan behera gelditu da. Kontua da azkenaldian ez duela euririk egin eta Errobi errekek oso ur gutxi daramala. Horrez gainera, Frantziako Tourra dela eta, Murruxikokoek ez dute aurkitu Errobi inguruan lo egiteko lekurik. Edozelan ere, irailean saiatuko dira, berriro ere, piragua irteera antolatzen.

FUTBOLA

UDA elkartearen infantil taldeak Gasteiz Cup saria irabazi zuen joan den zapatuan, hilak 12

UDAnko infantil mailako jokalariek nazioarteko Gasteiz Cup sari ospetsua irabazi zuten. Finaleko partidua Arrasateren aurka jokatu zuten. Berdinketa izan zen, eta penalti jaurtiketetan erabaki zen txapelduna. Azkenean, aretxabaletarrak izan ziren nagusi. Pello Okinak zuzentzen duen infantil taldea Gipuzkoako txapeldun izan zen joan den denboraldian.

FOTOKIROLA

**Kirol Kanpainaren bigarren txanda hasi da**

Kirol etxeak antolatzen duen Udako Kirol Kanpaina bigarren txanpan sartu da dagoeneko. Aurten 71 neska-mutil dabilta hainbat kirol egiten. Besteak beste, aurtengo kanpaina aerobikean, tenisean eta golfean jokatzeko aukera izan dute gaztetxoek. Ikusmin handien piztu duen kirola, hain justu ere, golfa izan da; ikastaroko ikasleek ez zituzten Augustako masterrean dituzten zelai zabalak, baina ondo moldatu ziren Ibarra futbol zelaietan. /A.L.

Maritxu
drogeria
mertzzeria

Araba Ibilbidea 24
Tel.: 943 79 23 53
ARETXABALETA


PAGALDAI

*Opari denda
Lurrindegia*

Durana 33 • Aretxabaleta
943 79 10 14

**JAR EZAZU
HEMEN
ZURE
PUBLIZITATEA**

Aretxagazeta



ZATOK GURE MUSIKAZ GOZATZERA

Mitarte 9 • Aretxabaleta
Tel.: 943 79 92 01

MUNDUTARRAK ARETXABALETAN

JOSILENE ARI JOSE VIEIRA

36 URTE / EDADETU ZAINZAILEA / CERES (BRASIL)

“Kostatu egin zait hemengo ohituretara moldatzea, baina orain gustura bizi naiz”

MIRARI ALTUBE

Aurtengo neguan bi urte beteko ditu Josilenek gure artean. Ez zuen urtarorik egokiena aukeratu Euskal Herrira etortzeko; izan ere, Brasilen zituzten 40 graduetatik hemengo lau gradueta pasatu beharra izan zuen: “Hona etorri arte ez nekien zer zen hotz pasatzea. Guk 18-20 gradu izateari esaten genion hotz”, dio Josilene.

Hasiera oso gogorra egin zitzaion Brasilgo mendebalek datorren emakume horri: “Ez nuen inor ezagutzen, ez nuen inorekin berbarik egiten eta oso bakarrik sentitzen nintzen. Hizkuntza oztipoa izan da niretako, baina aitortzen dut ni neu ere ez naizela lagunak samur egiten dituenetakoa”.

Brasilgo Ceres herriak eta Aretxabaletak ez daukate inolako antzik: “Nekazari herria da, baina fruitu arbolak dira nagusi. Eta bero egiten du, bero handia...”. Baina dagoeneko gustura bizi da Josilene gurean. Lan bila etorri zen, eta badauka lana. Seme-

alabak ere berarekin ditu, hiru, eta hemengo mutil batekin irteten da: “Kostatu egin zait hemengo ohituretara moldatzea, baina orain gustura bizi naiz. Ez daukat Brasilerara bizi izatera itzultzeko asmorik.

“Jaizale amorratu ospea daukagu brasildarrok, baina gehiago da ospea izana baino”

Gurasoak eta anai-arrebak sumatzen ditut faltan, baina hango bizi baldintzak oso gogorak dira. Lanera joateko, esaterako, 24 kilometro egiten nituen bizikletan, 12 joateko eta 12 itzultzeko”.

Irakurtzea du gustuko, eta gurago du etxean geratu lasai-lasai tabernaz taberna ibili baino: “Jaizale amorratu ospea daukagu brasildarrok, baina ospea handiagoa da izana baino”.



HURRETIK



Katalin Antxia

Andramaixetako lehiaketako irabazlie

Aurtengo Andramaixetako kartel iragarle lehiaketie irabazi dau, eta laister egitarauko azalien ikusiko dogu. Inglaterran euela jaso euen barrixe anaien agotik, eta ez eutzen siñistu.

Noix hasi zitzen marrazketan?

Zazpi bat urte nittuenien. Koadro mordue dauket egingd.

Lelengo aldiz aurkeztu zara?

Ez, bigarren aldiz. Oin dala urtetxo batzuk aurkeztu nitzen lelengo aldiz.

Zelakue da kartela?

Gorri-gorrix. Erdixen Aretxabaletako eleixie jarri dot eta behien, zezenak.

Zergaittik gorrix?

Atenziñue emuten dau, eta neure kolorie da, asko gustetan jat.

Pentsau dozu ze egingo dozun jasotako diruekin?

Ez, ez dakit, baiñe kapritxoren bat...

Zela gustetan jatzu marrazketie?

Oleo eta karbonzilluekiñ marraztu izen dot, baiñe neuri arkatzaz margoketie gustetan jat. Azkenengo lanak erretratu bi izen die, bixek arkatzaz.

Afiziño asko dittuzu, ezta?

Bai: txistua jotzen dot, dantzarixe naz, marrazketie gustetan jat eta futbolien egiten dot.

Ze egitten dozu aste bukaeretan?

Gehixenbat, kirola egin eta margotu.

Ze igerten dozu faltan Aretxabaletan?

Kanpoko igerilekue.

Nesken futbol taldien jokaketan dozu...

Bai, asko gustetan jat futbola, eta txikitetik jokaketan dot.

Athletic taldeetik deittu ezker, ze?

Pozik fango nitzake; taldeko bati deittu dutzie. Realak sortu arte itxoingo dot.

Oporretan kanpora fango zara?

Bai, Italiara, etxekuekin.

Etorriko zara Andramaixetarako?

Baiii... Urtero egoten naz.

M.A.

NIREBIDAIAHURA / Miren Lasagabaster

Bretania / 2002ko abuztuan


Ez ziren urruti joan Miren Lasagabaster eta Iraitz Zuazabeitia; hala ere, euren bidaiak bazuen abentura kutsua. Miren eta Iraitz Bretaniako eskualdera joan ziren iazko abuztuan, baina aldean, hamabost egun pasatzeko motxila handia beharrean, gauza bakararra eraman zuten: bizikleta.

“Bizikletan ibiltzeko lurralde polita zela geneukan entzunda, eta diru gehiegi gastatzeko gogorik ez genuenez haraxe bideratu ginen”, dio Mirenek. Uztailearen 27tik abuztuaren 8ra bitartean 800 kilometro inguru egin zituzten bideskor: “Egunean 65-70 kilometro egiten genituen, batzuetan gutxiago hurrengoan gehiago”. Bidaia, hala ere, trenean hasi zuten, Hendaian, hain zuzen. “Bizikletak askatu barrik sartzeko moduko trenak aukeratu gura genituen; hortaz, ez ginen edozein trenetan sartzen, eta horrek denbora apur bat galarazi zigun”.

Oso polita ei da Bretania. Kostaldeko herriak eta barrukoak tartekatuta zituzten Mirenek eta Iraitzek: “Herri txiki-txiki bizilagunek eta taberna inguruetan aurkitu genuen giroak Euskal Herria gogoraziti ziguten. Bretoiera da euren hizkuntza, nahiz eta oso gutxi egiten duten berba. Hori dela eta, euskaldunen kideak zirela esaten ziguten, eta gurekin berba egin gura izaten zuten”.

Paisaiak, berdea izan arren, ez du Euskal Herriaren antzik. “Eguraldiak bai, horrek badu Euskal Herrikoaren antza. Batzuetan sargori izan genuen, baina euria eta haizea ere bizi izan genituen, eta horrek asko zailtzen du bizikleta gaineko bidaia”, dio Mirenek. “Hala ere, oso esperientzia polita bizi izan genuen, eta Iraitzek eta biok erabaki genuen erretiratzen garenean Danimarkara joango garela, bizikleta gainean ezagutzera”.

M.A.



Gaztelu ikusgarria dago Mont Saint Michel herri gainean.

O R L A



Herriko plaza z/g ARETXABALETA


Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

IZOTZ
Taberna

Mitarte 16
Tel.: 79 73 65
ARETXABALETA



MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren 3
Aretxabaleta
Tel.: 943 77 11 76

Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2003ko uztailaren 18a / 133. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Degurixan egingo da, aurten ere, gutxitu fisiko eta psikikoendako kanpalekua

AMAGOIA LASAGABASTERI

Dagoeneko dena gertu dute gutxitu fisikoendako eta psikikoendako kanpalekua egiteko. Beste behin ere Degurixako zelaietan egingo du Behar-Zana elkarteak Gipuzkoako elbarriendako kanpalekua. Eskoriatzatik 25 bat lagun joango dira aurten.

Gipuzkoako gutxitu fisiko eta psikikoek aurten ere hitzordu garrantzitsua izango dute uztailaren 25etik 27ra bitartean. Beste behin, Behar-Zana elkarteak egindako antolaketa lanari esker, Degurixako zelai ederretan elkartuko dira kanpalekua egiteko. Aurten 80 lagun inguruk eman dute izena. Gehienak, urtero moduan, Debagoiendako eta Urolako ibarrekoak izango dira. Eta jakina, tartean, Eskoriatzatik ere joango dira batzuk. Aurten 25 eskoriatzarrek hartuko dute parte Degurixako kanpaleku berezian. Horietatik, erdiak baino gehiago gutxitu fisiko eta psikikoei laguntza ematera joango dira.

Kanpalekua osatuko dutenen erosotasunerako artzain batek utziko dien txabola bat erabiliko dute.



Debagoiendako eta Urola ibarreko gutxitu fisiko eta psikikoek paraje ezin hobean pasatuko dute datorren asteburua.

Han, besteak beste, sukaldea eta jantokia jarriko dituzte. Lo egiteko, berriz, kanpadendatan banatuko ohatzeak erabiliko dituzte. Degurixako kanpalekuaren

helburua da elbarriren bat duten pertsonekin denbora libre garatzea eta gizarteratze prozesuan aurrerapausoa ematea. Horretarako, Degurixan dauden bitartean

ondo pasatzeko ekintza ugari egingo dituzte. Hori guztiori antolatzeko, Behar-Zana elkarteak Gurutze Gorriaren eta boluntarioen laguntza izango du.

Aurten 25 bat eskoriatzarrek hartuko dute parte Degurixako kanpaleku berezian

Kanpalekuaren helburua da elbarriren bat duten pertsonekin denbora libre garatzea

Behar-Zana elkarteak Gurutze Gorriaren eta boluntarioen laguntza izango du



Oztopo arkitektonikoak ezabatzen

Aurreko agintaldia osatu zuen udalbatzak herriko oztopo arkitektonikoak kentzeko ahalgin berezia egin zuen. Helburua betetzeko plan bat jarri zuen abian. Azken urteotan aurrerapauso handiak egin dira, baina oraindik badago zer egin. Horregatik, Olaeta plazan oztopo arkitektoniko horiek gutxitu guran, dagoen arrapalaren malda leuntzen ibili dira asteon. Musika Eskolako sarreran ere laster hasiko dira lanak egiten. Oztopo arkitektonikoak kendu eta komunak egokituko dituzte.

LABUR

'Matxain'-ek zazpigarren lekua Granadan

Jesus Arroiabe *Matxain* zazpigarren izan zen Munduko Tiro Txapelketan. Granadan jokatu zen txapelketan 380 tira-tzailek hartu zuten parte. *Matxain* eskoriatzarrek super-beteranoen mailan jokatu zuen. Lehen postua Marokoko tira-tzaile batek eskuratu zuen eta bigarren lekua, berriz, Michel Tarrega frantsesak. Maila ona erakutsi zuen tira-tzaile eskoriatzarrek. Iaz *Matxain*-ek Espainiako Txapelketa irabazi zuen Munduko Txapelketa jokatu den zelai berebean.

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetzak	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

ZINEMA EMANALDIAK PLAZAN

Uztailaren 30era bitartean, plazan egiten ari diren zinema emanaldien barruan badago film onik ikusteko aukera. Kultura Sailak antolatu dituen emanaldiak astelehenera, eguaztenetan eta egubakoitzetan izaten dira 22:15ean.

Gaur, egubakoitza, *Amelie* emango dute, gaztelaniaz; hilaren 21ean, *Chiironbidaia*, euskaraz; hilaren 23an, *Mi gran boda griega*, gaztelaniaz; 25ean, *El otro lado de la cama*, gaztelaniaz; 28an, *Ametsen lapurra*, euskaraz; eta 30ean, *Ghost World*, gaztelaniaz.

AXTROKIRENAGENDA

URTEKO KUOTA

Axtroki euskara Elkarteak jakinarazi gura die bazkideei datozen egunetan pasatuko zaiela 12 euroko kuota. Norbaitek kontu korrontea aldatu badu dei dezala 943 71 54 34 zenbakira.

KZGUNEAN ZABALDU ZUTEN MAIATZEAN

Herritar askok hartu dute parte KZGunean antolatutako ikastaroetan

Zortzi ordenagailu jarri dituzte kultura etxeko lehenengo solairuan dagoen KZGunean. Rakel Lorente antzularra da bertako arduradun: "Hasiera-hasieratik etorri da jendea zer egiten dugun galdezka. Oso animatuta hasi dira eskoriatzarrak ikastaroetan parte hartzen", esan digu Rakelek.

Maiatzaren 31n KZGunea zabaldu zutenetik hona 50 herritarrek egin dituzte KZGunean eskaintzen dituzten ikastaroak: "Zazpi ordenagailu daude herritarren eskura. Zortzigarrena nik erabiltzen dut. Hasieran, eta Eskoriatza herri txikia izanik, uste genuen nahikoak izango zirela. Orain, berriz, ikastaroetara datozen lagunek ordenagailuak hartzen dituztenez, momentu honetan ez daukagu Interneten ibili gura duten beste herritar batzuekako ordenagailurik", jarraitu du Rakelek.


Uztailaren goizez dago zabalik KZGunea. Interneti buruzko bi ikastaro ematen ari dira: oinarriko Internet eta Internet aurreratua. Bi taldetxo ari dira parte hartzen: "KZGunea 18 urtetik gorako jendearendako da. Zazpi lagun ditu-

"Emakumeak dira, momentuz, sarean barrena sartzeko interes handiena erakutsi dutenak"

gu talde bakoitzean eta egunero bi orduko ikastaroetan parte hartzen ari dira", gehitu digu Rakel Lorentek.

Rakelek esan digunez, KZGunea etorri diren lagun asko eta asko emakumeak dira: "Erretiratuak ere polito etorri dira. Baina egia da emakumeak direla, momentuz, behintzat, sarean barrena sartzeko interes handiena erakutsi dutenak. Etxekoandreak dira gehienak, gainera", argitu digu Rakelek.

Uztailaren 30ean itxiko dituzte ateak KZGuneak, eta irailean, oporren ondoren, zabalduko dituzte berriro. Irailetik aurrera 16:00etatik 20:00etara egongo da zabalik.



Eskoriatzar ugari ari dira parte hartzen KZGunean antolatzen dituzten ikastaroetan.

TXUTXUMUTXUA



Oporrak euskaraz igarotzeko prest emakumeek

Duela hiru urte, Amuskak bul-tzatuta, euskara ikasten hasi ziren ondoko lagunak. Ainhoa Segura izan dute irakasle, eta aurten ere pozik ibili dira euskara ikasten. Nor-nori-nork, baldintza eta subjuntiboa baino gurago izaten dute kantari ibili. Oskorri eta Lertxundi dituzte gustuko. Euskara ikasteaz gain ondo pasatzea ez da plan txarra! Datorren ikasturtean bueltatuko dira euskaltegira.

LABUR

Baserrietan erabiltzen diren plastikoak jaso

Uztailaren 22an, martitzena, jasoko ditu Deba Garaiko Mendi Nekazaritza Elkarteak baserrietan erabiltzen diren plastikoak. Lau eratako plastikoak batzen dituzte: siloa estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza, belar boletakoa, negutegietan eta ortuetan lurra estaltzeko erabiltzen dena, eta negutegiko plastiko zuria. Martitzen arratsaldean Zarimutzeko bidegurutzean utzi beharko dute baserrietarrek plastikoa. Abendua bitartean beste hiru egun ibiliko dira plastikoa jasotzen.

EDURNE



Elektroterapia.

ESTETIKAN
ESPEZIALIZATUTAKO
ZENTRUA

Aranburuzabala 42
Tel.: 943 71 51 54
ESKORIATZA

TOKI ALAI TABERNA

Karajiloetan
espezializatua

Tel.: 943 71 47 29
ESKORIATZA



Gustora egoteko!

Intxaurtxueta 8
ESKORIATZA
943 71 40 63



MIRENTXU TABERNA

Kafe goxoa hartzeko
Tel.: 943 71 41 67

Euskal Herriko eta Espainiako Estatuko txirrindulari onenak izango dira Gatzagan

AINTZANE GARDOKI

Datorren irailaren 7an Leintz Gatzagako txirrindulari lasterketak zilarrezko ezteiak beteko ditu. Hori ospatzeko, Euskal Herriko eta Espainiar Estatuko txirrindulari amateur onenak izango dira Gatzagan. Horren eta beste ekitaldi ugariaren berri eman du gaur batzordeak.

2003ko urtarrilean sortu zuten, Gatzagan, herritarrekin osatutako Dorleta Txirrindulari Elkarteak. "Gatzagako lasterketak 25 urte beteko dituela-eta, zerbait egin guran lagun talde bat lanean hasi ginen. Gatzaga eta Dorleta beti egon dira txirrindularitzari lotuta. Dena dela, uste dugu azkeneko urteotan giro horrek behera egin duela. Horregatik, batzordearen gogoia eta helburua gurean txirrindularitza berriro indartzea izan da", esan digu batzordeko presidente Alberto Altubek.

IRAILEAN 25. LASTERKETA

Prensaurrekoan aurkeztu dituzte Dorletako amaren omenezko 25. txirrindulari lasterketaren gainekoak. "Irailaren 7ko lasterketa da prestatu dugun egitarauaren barruan egun inportanteena. Gatzagara etortzen diren Euskal Herriko ohiko talde amateurrez gainera, Espainiako Estatuko talde garrantzitsuenak gurean izango dira: Avila Rojas, Kelme-Costa Blanca, Burgosko Gruposa, Galiziako Supermercados Froiz eta Kataluniako Artevi taldeekin harremanetan gabiltza", esan du.

Irailean egingo den lasterketako ibilbidea aldatu egin dute batzordekideek: "Luzatu eta gogortu egin dugu ibilbidea. 133 kilometro izango ditu. Gatzagan hasi eta Bergaraino joango dira txirrindulariak. Handik Gatzagara itzuliko dira. Gatzagan gora jarraitu beharko dute. Legutiotik Otxandiora, handik, Kurtzetan barrena, Aramaiotik Arrasatera joango dira, eta berriro Gatzagara igoko dira. Ibilbidea amaitzeko, Arrasatera jaitsi eta Gatzagara itzuli beharko dute txirrindulariek. Mendiko criterium tratamendua eman diogu lasterketari. Tarteko hiru helmuga



Dorletako Amaren omenezko 25. txirrindulari lasterketa antolatzeko urtarrilean hasi zen herrian batzorde bat lanean.

"Batzordearen gogoia gurean txirrindularitza berriro indartzea da"

"Luzatu eta gogortu egin dugu ibilbidea. 133 kilometro izango ditu"

"Txirrindularitzaren inguruan ibili diren lagun guztiak omendu gura izan ditugu"

izango dira lasterketan, eta bakoitzak 150 euroko saria izango du" gaineratu du Altubek. "Aurten, bestetan ez moduan, sekulako sariak izango ditugu. Hori ere bada aurtengo beste berrikuntza bat. 6.000 eurotik gora emango ditugu saritan. Horrek kanpoko taldeak erakarri dituela esan behar da".

Lehen esan bezala, Dorleta txirrindulari batzordeak irailaren 7ko lasterketaz gain, beste ekintza batzuk ere antolatu ditu txirrindularitzaren inguruan. Gogoratu behar da joan den martxoaren 2an batzordeak lehenengo ekitaldia egin zuela Dorletan: zikloturistei ongiatorria egin zioten eta zaindariarendako lore eskaintza izan zen. Ekitaldi hark ez zuen batzordekideek espero zuten besteko harrera onik izan. Batzordekideek esan digute uste baino txirrindulari eta jende gutxiago hurbildu zela Dorletara. Baina horrek indarrak ahuldu baino gehiago, indartu egin zien batzordekideei, eta beste ekitaldi batzuen berri eman dute gaur.

Urrirako -ora- indik zahaztu barik dute eguna- txirrindulari profesionalekin hitzaldia antolatu gura dute. Beste egun baten, berriz, kirol medikuak ekarri gura dituzte hitzaldia egiteko. "Urriaren 5ean, berriz, mendiko lasterketa egingo dugu", esan digu Altubek

OMENALDIA TXIRRINDULARI NAGUSIEI

Dorleta txirrindulari batzordeak, bestetik, txirrindularitzaren inguruan lan handia egin duten txirrindulari eta lagunei omenalditxoak egin gura izan die gaur. Guztiak omendu guran Dorleta Amaren Elkarteak sortu eta luzaroen lanean ibili ziren hiru lagun aukeratu dituzte: Inazio Arranz gasteiztarra eta Anjel Arrese eta Esteban Arrieta eskoriatzarrak. "Hiru lagunok omenduz txirrindularitzaren inguruan ibili diren guztiak omendu gura izan ditugu", esan digu Altubek. Bizikleta eta Amabirjinaren irudia egurrean landuta dituen oroigarria eman diete. 1975ean egin zuten Dorletako Ama txirrindularien zaindaria. Elkarteak osatu eta garai hartan batzordekide izan ziren lagunak ere Gatzagan izan dira gaur.

aroztegia
Leintz

Aingeruguardako ibilbidea
Tel.: 943 71 49 36
ESKORIATZA (Gipuzkoa)

- Sukalde altzariak egiten ditugu
- Armairu enpotratuak
- Neurri bereziak

ESKORIATZA
ERRETEGIA
MENDIOLA
Tfno 714345

Bazkari eta afariak


Astelehenetan itxita
ESKORIATZA

Ze barri?

Izan zaitez zeu ere berriemaile!

Zure taldearen, auzoaren, elkartearen... gainera informazioa emateko, deitu gurera!

943 79 86 21



Uda honetako gure helburua

AITZORROTZ

Gasteizko bidea z/g • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 42 94

GARAJE NORTE S.L

Basabe bidea A -13 • ARETXABALETA • 943 71 20 03



Larrinbe • ARETXABALETA • Tel.: 943 79 16 66



Aingerugarda 11 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 51 86



Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61

OSKAR garajea

Basabe industrialdea A-2-4 • ARETXABALETA • 943 79 98 74



GEMES BERRIA

5 estetika gela

Makillaje gela

Solarium horizontala eta bertikala

Kontsulta gela

Gemes
estetika

HELBIDE BERRIA: Hilargi plaza 1, ARETXABALETA. 943 79 99 18.